

B.1. KORRIKA kanten egileen biografiak.

- Aldizkaritxoak banatuko dizkiegu ikasleei, eta 1. eta 2. orrialdeko testuak irakurriko dituzte. Irakurri ondoren, bakarka, eskaintzen zaizkien esaldiak testuan kokatuko dituzte. Ariketa talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUNAK:

a-4; b-7; c-3; d-9; e-1; f-10; g-5; h-2; i-8; j-6.

- Ikasleek, taldetxotan, beste KORRIKA kanten egileak aukeratuko dituzte, eta, aldizkariko biografiak oinarri, haienak idatziko dituzte.
- Biografiak elkarri azalduko dizkiogu, dagozkien kanteekin batera, nahi izanez gero.

OHARRA: biografiak idazteko informazioa bilatu beharko denez, lan hau egun bitan bana dezakegu: lehenengo egunean, musikariak aukeratu eta taldetxotan informazioa nola bildu erabakiko dute; bigarrenean, lortutako informazioarekin biografiak idatzi, eta elkarri azalduko dizkiote.

B.2. KLIKA KORRIKA 2019 kanta

- Ikasleek, binaka, eskaintzen zaizkien hitzen sinonimoak bilatuko dituzte kantaren hitzetan (3. or.).

ERANTZUNAK:

1. Lelo: eslogan; *slogan*

2. Hauspo: fuele; *soufflet*

3. Ozen: en voz alta; *à voix haute*

4. Arnas: aliento; *haleine*

5. Oreka: equilibrio; *équilibre*

6. Zirika: provocando; *en incitant*

7. Aukera: opcion; *option*

8. Tinko: firmemente; *fermement*

9. Ezinbesteko: imprescindible; *indispensable*

10. Nortasun: personalidad; *personnalité*

11. Oinarri: base; *base*

- Kantaren hitzak ikasten saiatzeko, "KORRIKAREN kanta osatzen" jokia egingo dugu. Prozedura 3. orrialdetan dago.
- Kantarekin amaitzeko, ikasleek, taldetxotan, bestelako estrofaren bat asmatuko dute. Horretarako, nahi dutena egin dezakete: kantaren estrofa bati hitzak edo esaldiak aldatu, edo erantsi, estrofa gehiago sortu...
- Estrofak ozen irakurri edo, animatuz gero, abestu egingo ditugu.

B. DENBORA-PASAK

- Ikasleek, bakarka, aldizkariko denbora-pasak egingo dituzte (4. or.). Erantzunak talde handian alderatu eta zuzenduko ditugu.

ERANTZUNAK:**Hitz gurutzatuak:**

1. Gose; 2. Akelarre; 3. Gozategi; 4. Egan; 5. Betagarri; 6. Esne Beltza; 7. Joxe Ripiau; 8. Oskorri.

Hiru baietz:

7.

1: gotor / jator / sator / badator.

2: 10. KORRIKARI dagokio. Hitzak Andoni Egañarenak dira, eta musika Gozategi taldearena.

3: c.

“KORRIKAREN KANTA OSATZEN” JOKOA

Joko honetan, “KORRIKAREN kanta osatzen” ikus-entzunezkoa erabiliko dugu ordenagailuaren pantailan, telebistarenean edo beste edonon jarrita ikasle guztiek aldi berean ikus dezaten.

Jokoaren helburua

- “KLIKA KORRIKA 2019” kanta bederatzi ataletan banatu dugu. Atal bakoitzean kantaren estrofa bat dago, eta jokoaren helburua da atalak osatzeko falta diren hitz guztiak ondo kokatzea (aukeran izango dituzte; direnak eta zenbat faltsu).

Jokoaren arauak

- Ikasleek binaka jokatuko dute. Eskolan ikasle gutxi baditugu, bakarka joka dezakegu. Jokoa irakasleak bideratuko du.
- “KORRIKAREN kanta osatzen” ikus-entzunezkoa martxan jarriko dugu.
- “Gelditu” adierazten duen ikurra agertzen den bakoitzean bideoa eten egingo dugu.



- Ikasleei hutsuneak betetzeko denbora utziko diegu: paper batean idatz ditzatela.
- Asmatu duten jakiteko, bideoa martxan jarriko dugu.
- Prozedura hau errepikatu egingo dugu, kantaren 9 atalak osatu arte.

